

BAIONAKO EGOITZA PARTEKATUA

FORMULAK & TARIFAK

Eguneratze data: 2025/09/23a



ON! Pizten
gaituena
Se connecter
à l'euskara

Web | Tiers-lieux | Publications | Stands

Sentsibilizazio ekintza eta tresna partekatuak

FORMULAK

Hiru erabilera maila bereizten dira:

- **BISITARIA:**

- Perfila: Erabiltzaile puntuala da.
- Maiztasuna: Urtean Bilgunea edo Sorgunea 1-4 aldiz okupatzen ahalko du.
- Ordainketa: Sartzeko bazkietza bat pagatu beharko du (50-100€ artean), baina ondotik erabilera doakoa izanen du.
- Zerbitzuak: Erabilera aukerak murriztak ditu.

- **BIZIKIDEA:**

- Perfila: Erabiltzaile erregularra da.
- Maiztasuna: Urtean espazioak 50 aldiz okupatzen ahalko ditu.
- Ordainketa: Urteko bazkietza bat pagatu beharko du (250-500€ artean urteka) eta ondotik urririk du.
- Zerbitzuak: Erabilera aukera eta zerbitzu gehiago ditu, baina bere presentzia eragile gisa ez da seinalatua kanpoari begira.

- **ETXETIARRA:**

- Perfila: Erabiltzaile jarraikia da. Denboraz eta diruz inplikutzen da espazio horren biziartzeko.
- Maiztasuna: Nahi bezainbat erabil dezake eta urtean behin pribatizatzen ahal ditu espazio desberdinak.
- Ordainketa: Sartzeko bazkietza bat pagatu beharko du (250-500€ artean behin betiko) eta ondotik alokairu finkoa 250€/hilabetean.
- Zerbitzuak: Materiala gordetzeko espazio pertsonala izanen du, besteen gaineko erabilera lehenetsia, kanpora begirako ikusgarritasuna, gobernantzan parte hartzeko aukera, materiala saltzeko aukera...

Formula batetik bestera libreki pasatzen ahal da urtean zehar, baina gorantz bakarrik (Bisitari > Bizikide > Etxetiar). Elkarte bat Etxetiar gisa engaiatzen da gutxienez 12 hilabetez; 3 hilabeteko epea aplikatuko zaio uztea erabakitzen badu.

Egitura batek egoitza erabiltzeko eskaera egin dezake BIZIKIDE edo ETXETIAR gisa. Etxetiarren batzordeak ontzat eman beharko du, irizpide objektiboen arabera (elkartearen misioak, hizkuntza gaitasuna, espazio librea).

TARIFAK

ON! proiektuaren helburua ez da espazio horrekin dirua irabaztea. Eragile guzien artean gastuak partekatuz, espazio ireki eta funtzional bat biziartzea da xedea.

Finkatutako prezioek hiru irizpide nagusi jarraitzen dituzte:

- Hasierako, hilabeteroko eta urteko gastuek ordaindu ahal izatea,
- Lan eta sormen espazio irekia eta eskuragarria izatea prezio apalean,
- Eragileak molde iraunkorrean ON! gunean inplikatzeko, ahalaz Etxetiar bilakatzeko.

Hasieratik inplikatuak izanki, Etxetiarrek denbora eta energia asko dedikatu dute proiektuaren sorreran. Kidetza tarifek eta zerbitzuak, hasierako inbertsio hori kontutan hartzen dute, gehiago eman dioten egiturei zerbitzu gehiago eskainiz.

Bazkidetza eta alokairua

Egoitza erabiliko duen egitura eta norbanako orok, sartzeko hasierako bazkidetza bat ordaindu beharko du. Bazkidetza horrek betiko balio du eta ez da berriz ordaindu beharko. Formula eta izaeraren arabera, prezioak aldakorrak izan daitezke.

Ondotik, bere formularen arabera, forfeta edo hilabeteko alokairua pagatu beharko du. Adostutako maiztasun batean faktura bat eskuratuko du eta 10 egun izan daitezke ordaintzeko. Urteko alokairua tanpez pagatzen dutenek, %100a euskoz paga dezakete, besteek %25a.

	BISITARIA	BIZIKIDEA	ETXETIARRA
	Urtean 1-4 erabilera	Urtean max 50 erabilera	Erabilera erregularra eta librea
Hasierako bazkidetza			
> norbanakoak	50€	250€/urtean	250€ behin betiko
> kolektiboak	100€	500€/urtean	500€ behin betiko
Alokairua			
> norbanakoak	0€	7€/eguna	50€/hilabetea
> kolektiboak	0€	30€/eguna	250€/hilabetea

Egoitzaren oreka ekonomikoa aitzinatu arau, prezioak egokitzea erabakitzen ahal da. Era berean, hasierako inbertsioa egin duten elkarteek beren diru ekarpena osoki edo partzialki itzultzea adosten ahal da.

SINTESIA

		BISITARIA	BIZIKIDEA	ETXETIARRA
		Urtean 1-4 erabilera	Urtean 4-40 erabilera	Erabilera iraunkorra
EGOITZEN ERABILERA	SORGUNEA	BAI	BAI	BAI
	BILGUNEA	BAI	BAI	BAI
	TXILGUNEA	EZ	BAI	BAI
	On.eus sarbidea	EZ	BAI	BAI
	MARTIN UGALDE	EZ	EZ	BAI
EGOITZEN AZPIEGITURA	Kafe & Tea	EZ	EZ	BAI
	Inprimagailua	EZ	EZ	BAI
	Materiala - Prentsa	EZ	EZ	BAI
	Kutxatila pertsonala	EZ	EZ	BAI
	Giltza propioa	EZ	EZ	BAI
ZERBITZUAK & FUNTZIONAMENDUA	Helbideratzea & Egoitza soziala	EZ	EZ	BAI
	Lehentasunezko erreserbatzea	EZ	EZ	BAI
	Egoitzak pribatizatzeko aukera	EZ	EZ	BAI
	Ikusgarritasuna kanpoari begira	EZ	EZ	BAI
	Administrari zerbitzuak merkeago	EZ	EZ	BAI
	Komunikazio zerbitzuak merkeago	EZ	EZ	BAI
	Materiala salgai emateko aukera	EZ	EZ	BAI
	Baionako besten etekinen partekatzea	EZ	EZ	BAI
	Gobernantzan parte hartzea	EZ	EZ	BAI
ORDAINKETA	Hasierako bazkidetza			
	> norbanakoak	50€	250€/urtean	250€ betiko
	> kolektiboak	100€	500€/urtean	500€ betiko
	Alokairua			
> norbanakoak	0€	7€/eguna	50€/hilabetea	
> kolektiboak	0€	30€/eguna	250€/hilabetea	